

BATASUNERA-BIDEAN

EDO

PERNANDO AMEZKETARA-REN AUTSI-OSOTXOAK

ETA ARDI GALDUA-REN AUTSI-MAUTSIAK

Iruñian aurten, otsaileko bigarren batzaréan, *La Epéntesis en la Conjugación Vasca* deritzaion lanaren azken-aldean, iru eskari zuzendu niñkitzuten ene lankide astitsu maiteoi. Onela erakutsi nuen bigarren eskaria: «Pido en segundo lugar haga ya un esfuerzo la Academia en unificar por lo menos los dos dialectos occidentales, empezando por el que está más próximo a la uniformidad total». Euskalki au zein den guziok dakizute: Giputza. Eskari onen ondoren epaila (martxoa) eldu zitzaigun ta euskaltzainak isilik zeuden, eldu zan yoñaila ere ta berdin. Loraila (maiatza) agertuz bateratsu liburu polit bat igorí zidan bere egile ta gure lankide lanzale Mujikak. *Perñando Amezketaña: bere ateraldi ta gertaerak* du liburu onek izena. Berealaxe asi nintzan irakurtzen. Nere arlo goxoa asi ta bereala, zuei Iruñian zuzendu nizuten eskari orek *Perñando Amezketañaren* ori-artetik irtenez, nere burmuñ artean dei au egin zuen «bat dezagun aleginez oso batua ezten euskalki au».

Nere lantxo onek izen bat bear ta «au ezote... baote, beste ori ezedo... baedo» onela gogoetatsu nenbilela, *Perñando Amezketañaren autsi-osotxoak*

otu zitzaidan izentzat ezartea. Izena luze-xamaña izanaren, liburutxoak *autsi* gufi dituelako, gai geiago bear ta bestetxo bat aratzen, ikertzen, bilaketan asi nintzan: **Ardi galdua** du izena bigarren onek. Beronen ofi-artetik laxter atera zuen burua lengo izenaren geigafiak: **Ardi galduaren autsi-mautsiak**.

Izaki andiak zenbat aundiago diren anbat izen laburago bear dutela nonbait irakuri dut. Aurten eun urte Viena-n ildako musikolari omentsuak bere ilobian ezomendu beste irakurgairik auxe baizik: **Beethoven**. Ostera «aquí yacen los restos mortales de... Urlia, Berendia naiz Zandia... ain urtetan jaioa... eta abar» ilari baten ikusiz geroz, izaki txume exerexen bat izaten omenda barnean datzana. Au beti egia baldin bada, **Pernando Amezketaren autsi-osotxoak eta Ardi Galduaren autsi-mautsiak** deritzaion lan au ezagutu bear duzutenok eruki zaituztet, gaixook.

I. Lenengo gaia: beste euskalkietako itz ta esakerak.

Liburu naiz batak naiz besteak daduzkanak ugari dira, batez ere *Ardi-galduarenak*. Bizkaierazkoak ditugu arozkada geientsu auek. Badira batzuk ordea Lapurdi, Napañoa, Eronkari ta Zuberotikoak ere. Ona emen Pernandorenak:

1.^a *Arkuma ta duroa, arkuma bat atera naiean zebilén Pernando, eltzen zion arkumari* (71 garén orialdean). *Txeñi eme bat zeraman bost txeñikumakin* (103-5). Bizkaierazkoak dira *labe, ote, agure* ta *emakume*-ren ordezko *laba, ota, agura* ta *emakuma*. Beste ogei ta zortzi itz, auen antzekoak, **Morfología Vasca**-ren 36 ta 37-garén orialdêtan irakur ditezke.

Aiezaz gainera beste bi auek dakarzki Mogelek: *atsakaba* ta *aingeru-tajda*. Markinan *anaa bat* da «un hermano» ta Gernikan «ay de mí» *ai ena* (1).

2.^a *Beñiz esanaz* (11-13), *Olaizolak lagunduaz* (11-16) dio gainera *Pernandok*. *Esanez* ta *lagunduz* giputz jatorragotzat daduzkat.

3.^a Ezta añitzekoa Beteñin ere zabaldua den *ondo ongi*-ren ordeez emen ikustea: *gizon ondo* jantzi bat (33-4). *Morfologia*-n *-todun* amar itz bi zefendatxotan ageri dira (242-17): *ederto, eñazto...* ta abar, oartxo auxe gaineratuz: dos de éstos—*obeto* y *ondo*—han invadido un dialecto vecino, desalojando de él a *obeki* y *ongi*.

4.^a Adizkietan, muñ-osteko *vocal epentética*tzat *a* du Bizkaierak, *r* edo beintzat *l* muñak ezpadu: *dakařena, datořela, dabilenean* ta *dagoana, esan naban, antxe egoan*. Noizbait *u*-ren *u*ren ere *e* onek burua agertzen du, arako esakera eder *dabenari dabela* latinezko *suum cuique* biurtzeko esan oi dugunean bezala. Gipuzkera jatoriez *dagoena, esan nuen, antxe zegoen* dira adizki oriek. Pernandoren liburuan

(1) Lafaunen ere *ai ena* emakumeak esaten omendute. Zegaman uriko ta efiaren Patroi-egunean au urtero kantatzen da:



San Bartolomeri eskefak edo, Zegaman *ai ene* ezta *aienatu*.

e-ren ordez Bizkaitaren epentética au maiz irakuñi oi da, beti ez ordea. *Pernandok igari zuan* (6-5), *Pernando Amezketañak auzia irabazi zuen* (35-8). Eztut aipatu gabe utzi nai 35-garen orialdeko *zuen* eder bat: *andik egun gutxira* (nere ustez obeki legoke *gutxitara*) *epaikari-auñera* (*juezetara*) *deitu zuen Pernando*. Au, uste dudanez, beste euskalkiren bateko izkuntza da, bainan ederki, egoki ta zeazki artua. Gipuzkeraz *deitu zion* ta Bizkaieraz *deitu eutsan Pernandori* esan ta entzun oi dugu. Izan liteke ordea beste euskalkietako esakera ori baino ere zeatzago beste au izatea: *nagusiak dei egin zion Pernandori*. ¿Zerengatik zeatzago? Hablar ezta *iztu*, *itz egin* baizik; dormir *lo egin* da, *lotu* ez; llamar adiarazteko *deitu* eriak esanaren, *dei egin* ere esaten du ta jatorago dirudi bigarren onek. Beredin urte (urte asko) igaro zaizkit neri Benapañoan ikasitako oiuki polit bat zearo ulertu ezinik:

Buba ñiña, lotzeko mina
haurá dugu ñimiño,
lokhartzeko gaiztoño:
bubaño, ñiñaño,
haur ñipia lo dago.

¿Zer duk *lotzeko mina*? esaten nion nere buruari ta nere buruak etzidan argitasunik ematen. ¿*Dolor de ser atado* oteduk? ¿Nork lotzen dik ordea aurfo bat? Urteak igarota Eronkarin ta Zuberon *lotu* entzun nuen *lo egin*-en ordez. *Lotzeko min* ori «ansia de dormir» dela ageri da.

Zabal dezagun beñiz ere liburu beñia. «*Egitekotan, oraintxe*» esan nuan (12-1), *nere lana auñeratu nuan* (12-5) ta gero *ori da ba nik esan nuena* (35-4). Adizki batzuetan bigungafitzat beti *a*, beste batzuetan beti *e*

yarten du: *ereslari trebeak entzun genituen* (9-1), *ao-zabalik entzun genituen* (10-11)... eta *makiña bat txalo irabazi zituan* (9-5), *bi práile arkitu zituan* (46-4).

Bizkaierazko bigungafi au gipuzkeraz geien erabili duena Asteasuko efitore Aguirre izan zan. Lardizabal bere Gramatikan *Testamentu zarreco condaira*-n baino giputzago da. Liburu artan erderazko «estaba» zegoen dela dio (p. 48), bigaeren idazki onetan beriz *baña deabrua lo etzegoan* (115-21).

Gipuzkeraz (Irun-aldez landa beintzat) *izan*-en adizki bakar bat dazagut e biguingafiduna: *dena* lo que es. Gainerakoetan beti *a* entzun izan dut: *etofi dalako, il ziranean...* eta abar. *Pernando ere txerriã iltzen asi zala* (82-17) dio liburu polit onek. Neronek ere **Ardi galdua** egin nuenean enekian nondikoak ziren *dala ta dela, geralako ta garelako, etofi zanean ta zenean*; eta liburu artan ere beti *a* ageri da ofelako adizkietan. *Emazte zanaren aizpa* (1-14), *il zala jakitean* (1-15), *izeba zanak* (2-2), *eztakigu eztula zer dan* (2-8), *maranta ta bularrestua* (katafoa) *zer diran ere ez* (2-9).

5.^a Bizkai-usaindun beste itzik ez izkuntzarik gufi dakar ta dakarzkienak egoki artuak dirudite, utsune-betegariak baitira. Ona bat: *ulertu* (75-8); beste bat, *zeintzuk* (????); beste bat: *egun baten* (101-3). Azken esakeratxo au beste bi eratara ere badu: *efi koxkor batean zan* (41-3) ta *beste batian gizon aundizki batek galdetu zion* (47-3). Gorago azaldu ta ikertu dudan *deitu zion Pernandori* bezala, esakeratxo au ere zeatzago litzake bi era auetara: *aundizki batek galdetu zuen* eta oraindik obe *aundizki batek galde egin zion*.

6.^a Utz dezagun, geroxeago beriz eskuratzeko, *Amezketaren* liburu polita, *Ardi Galdua* zabalduz. Bizkaierazko itz ta esakerarik emen ¡¡Jesus ta bat ala ere!! berogeitik gora dira. Ona zefenda luzetan yariak:

A

Abegi acogida (89-26). *Alegi* utsez ageri da. *Abegor* naiz *arera* bere ordez erabili banu, obe.

Agor agosto (137-14). *Zâr-tua* da-au, beste edozein baino egokiago bai.

Agun soga (62-5).

Aldako *usoak* palomas mensajeras (94-25).

Altzari mueble (20-21). Au ere *zâr-tua*.

Arantz-onantz de una parte a otra (130-23). *-antz* ori giputz *-ontz* baino askozaz egokiago delako erabili nuen (Ikus *Morf. Vasc.* 333-17).

Afata el empeño (27-2).

Asikin primicia (VII-2).

Aratu registrar (58-5).

Artetsu tranquilo (4-20). *Lasa* erabiltea etzitzaidan bururatu, Ezagutu ez edo.

Afain (3-1) *arai*-ren ordez. Geigafian (145-an) esan nuenez, beste euskalki guztietako indun itz asko (*artzain, usain, izokin, ipuin, arain...*) n gabe esan oi dira gipuzkeraz: *artzai, usai*. An agertzen da zerengatik erdiko euskalki onetan sartu bear ditugun otsiziti-lege (fenómenos fonéticos) batzuk.

Atondua lo preparado (61-8).

Aurka contra, en contra de (84-28).

B

Ballitzan como si fuera (VI-13).

Bainituen como si los tuviera (31-12). Orien ordezko *balitz bezala* ta *banitu bezala*-ri erdal-sunda (1) *artzen* diet.

Balbe muerte (personificación de la) (96-17). Zabalak bere ipuinetan ederki dakar.

Baltzu sociedad (nere Ama maite, nere irakaslerik andienari entzuniko itz edefa). Ta ofetatikoak **Baltzu-lagun** (26 8) ta **Baltzukide** (35??) socio edo consocio.

Bekoki frente (148-3), *ko-peta* erdekarada delako.

Belun oscuro (??). An-tzuolako itza.

Berera cómodamente(??).

Bezua regalo (133-6). Itz *zâr-tua* da au.

Biao siesta (115-26). Orain ere *Afasaten* ta *Bakion* esan oi da. Bai *Zigoitian* ere, *aberrên* loa adiarazteko.

Bikondean a duo (108-11). Bediako albokariburutsu bati entzuna.

Bitzuk dos grupos (24-28).

(1) Au ere Bizkalerazko itz eder «tufo».

D

Darakus él lo muestra (114-28).

E

Edatsi referir, narrar (32 1)
Itz zârtua.

Ediro hallar (79-20) Itz zâr-
tua. *Idoro* esaten da orain,
asko ezafen (1).

Eguna bijoa (*beioa* Biz-
kaian) gaua betor (116-7).
Antxe ageri da esakera polit
onen zentzuna.

Ekandu costumbre, hábito
(102-15). *Ekandu* ta *oikuntza*
(oitura) eztira bat.

Eredu modelo (119-7).

Efudun culpable (75-10).

Ezarian disimuladamente
(21-3).

G

Garako provector, machu-
cho (131-3). *Garediko* en la
flor de la edad. Ikus **Gara**
Iztegian.

Garatz negocio (14-28,
51-26).

Giarduelarik ocupándo-
nos (84-14).

Geroenean al fin, al cabo
(???).

Gogokizun intención
(96-4).

Goraintzi recuerdo, salu-
do (7-8). Beste edozein eus-
kalkitan. Bizkaian *gorantz*.

Guren santo (43-5, 88-17).

I

Jardun-a el discurso (88-21).
Ingira escrúpulo (124-15).

Yoran afán, entusiasmo
(V-9).

L, M

Lengusina prima (2-2).

Mamurketa masticación
(47-12).

Mindun provisto de lengua
(79-14).

Mindun dolorido. *Mingain*
lengua-bezala esanafen, so-
bre la lengua da.

(1) Badira beste Itz zârtu batzuk ere: *idurikatu* simular 49-13 (Giputza au); *datza* yace, está situado 5-9 (au nonnaikoa); *oneresten dezula* que le apre-
ciáis 87-9.

N, N

Neba hermano (de mujer)
78-18.

Nirautsan yo se lo decía
(49-20).

Noraezeko imprescindi-
ble (VII-9).

Norbaitzuk algunos
(114-15).

Ñir-ñir relucientes (los
ojos) 58-25.

O

Ogerleko duro (moneda)
10-5.

Oratu agarrar (36-19), *El-*
du beste zerbait delako.

Ortzargitasun simpatía
(110-5).

Oboki circular. *Obo* círcu-
lo eñari entzun diot.

T, Tx, Tz

Tutu pequeñín (89-8): etxe tutua (Mundakan). **Txeratsu** cari-
ñoso (89-26). **-tzu** grupp: *Bitzuk* dos grupos (24-28), *zeintzuk*
cuáles (37-23).

U

Ulertu comprender (18-12). **Urlia**, **Berendia** ta **Zandia** fula-
no, zutano y mengano (103).

Z

Zautu banquete (96-17).
Zauzkada impresión, efec-
to sensible (94-19).

Ziraustan me lo decía
(97-20).

7.^a Beste euskalkietatiko itzak ere badituf. Gal-
de egiteko, *nor zer zein nora* ta beste onelako itzik
ezten guzian, euskalki batzuetan oso erara *-a* bat
ezari oi diote adizkiari. Gure **Morfologian**, beste
zerbaiten gainera, au irakur diteke: «Si no hay en la
frase vocablo interrogativo, la interrogación se indi-
cará añadiendo *a* al verbo conjugado: *eñanen duta?*

lo diré? (Oihen. pág. 99 l. 2). Goraxeago dio: (Este) Modo interrogativo sólo se usa en los dialectos orientales, quedando en los demás sólo algún vestigio fosilizado. **Morf. Vasc.** 251-6...), Nik beintxo erabili nuen galdera -zantzu au nere **Ardi** aren orietan: *Zein da kale ori? Nun da? Ageri dea?* (129-11). Euskalki orietako itz bakan batzuk ona: *Aipu* mención (15-8), *Akura zak* alquiler (60-15), *Antzi aztu-ren* ordez, beronen aurretikoa baita (15-11). *Balderna* barrio (147-18), *Armarmak atzik bezenbat luma* tantas plumas como patas (tienen) las arañas (128-9), *ontziko harian* en la sala del buque (78-19), —*hura* «aquél» *h* fá guzi bezala, *ari* «hilo»-z *nâsi* eztiten, *h* ta guzi ageri da itz *zâr ari* sala—Eronkariko *bereter* sacerdote (9-13) ta itz *zâr onen* seme diren izpefi auek: *beretergai* seminarista (50-16), *beretertegi* casa cural (64-6) ta *bereterburu* arcipreste (??). *Hura zaldiz bezen eñaz* tan fácilmente como aquél a caballo (29-17), **egungo uri ketsu**, *erdaltsu*, *dirutsu ori* esa villa humosa, abundante en lengua extraña y adinerada de hoy (VI-15), *elealdi* conversación (58-7), *erabez* por temor (83-22), *bilduñez* por miedo delako, *eñegebide* carretera, camino real (38-21), *gaitzetsi* condenar, reprobar (85-1), *iguriki* esperar, aguardar (121-23), *batzuez landan* fuera de algunos (????), *laurdene-gun* trasanteayer, itzez itz, cuarto día (43-14), *mugakide* fronterizo (????), *mukuñu* bulto (130-28), *nerabe* adolescente, *nerabetan* siendo adolescente (73-13), *zeinu* campana (62-5), *zeinutegi* torre, campanario (62-6), *zinkurin* suspiro (??), *zinegotzi* concejal (??).

8.^a Izpeñitan (neologismotan) eztu Mujikak burua autsi, Pernando ezagutarazteko, bear ere ez. Itzaurean onela erakutsi du bere egikizuna (1): *neronek ez det*

(1) *Eginkizuna* esan oi du eñiak Gipuzkoan; Napafoan ta Bizkaian askozaz zeatzago *egikizuna* (Ikus *Morfol.* 110 ta 111 g. ofiald).

ezer asmatu; nere burutik ateratako ezertxo ere ez diot Peñando'ri ezari (12-17). Goraxeago iru leño lirain auek dakarzki: *oni galdetu, ari idatzi, emen irakuri, andik artu, alakori entzun, onakori esan-erazi, apurka-apurka nere lana auferatu nuan* (12-3).

Amezketan Pernandoren omenez egindako jaiak jakinaraztean lau izpefi nolako edo alako, bainan oso zabaldu direnak, darabilzki: *abeslari* (8-15), *abestu* (8-16), *abesti* (10-11) ta *antzoki* (11-6). Geroxeago beste auek: *epaikari* juez (105-6), *eresi* (???) ta *idatzi* (12-3).

ARDI GALDUA-ren ofietan ugari dira izpefiak, geienak bere Artzainarenak, lenengo biak ez.

A

Agurtza rosario 113-23.

Aldundi diputación 38-23.

Artailu cuadro de pintura 79-2.

Arteki episodio 67-13.

Artitz inscripción, Oienart-en *ilartitz* epitafio-tik artua 79-9.

Afebatzako cuñada 148-9.

Afoztegi posada, hotel; itzez itz arotz «huesped»-lekua 114-28. Beste ofialde batean (4-25) hoteltzat *arozku* datza. Gaizki sortua da izpefi au, *-gu* atizki (sufijoa) aditzena baita: *ikusgu, ikasgu, xosgu* e-a.

B

Baltzukide consocio, Mundakako zâfen *Baltzu* sociedad-tik artua (5-5).

Barute cuaresma (96-14), *negute, eurite, izozte...* bezala eratua (1).

Befinarki periódico (papel) 102-8. Enau betetzen itz onek.

Befizkatu repetir (111-25).

Bidekatu descarrilar 52-16.

Biltzifika bicicleta (itzez itz, rueda para andar) 29-18.

Bilune centro de reunión VI-19. Napañoan *bilgu* (R) ta *bilgio* (Aezkoan) darabilzki efiak onetarako.

Birigaitz tisis 2-10.

(1) Lekeltion *baruzaro* norbaitzuk esan oi dute.

D

Dioketsut os lo diré 79-6.

E

Edergafi grabado 114-21.
Izpefi zartxoa dut au, **Eus-**
kalzale-n jaioa.

Elexur lacónico 55-15;
itzez itz, avaro en palabras.

Elikonde coro 109-5. *Eli-*
grupo ta Bizkaiko *konde*
(Ikus *bikondean* a duo) dira
izpefi onen gurasoak.

Elizain mayordomo 34-26.

Elizgela sacristía 48-26.

Elizgelari sacristán 61-23.

Elizjaufi patrón de iglesia
31-10.

Epailari juez 75-20. *Per-*
nando-ren liburuak *epaikari*
dakar (105-6).

Eresi canto 111-17.

Etebelar tabaco 98-8.
Efiak nonbait esaten oteduen
nago.

Espen nota, calificación
25-6.

Etzataulki canapé 48-26.

G

Gaizpide escándalo 102-19.

Gelune estación 74-6. *Eus-*
kalzale-ren ofietan agertuzan
lenaldiz. Añezkeroko *geldoki*
gaizki eratua da (Ikus *Ardi*
Galdua 152).

Gezur-agindun de dientes

postizos 47-7. Nere aitaren
lantxo baten ikusitako *guzur-*
ule (pelo postizo)-tik artua.

Gizuren héroe 73-8.

Gurkalari ceremonioso
66-5.

I

Yaiogu lugar de nacimien-
to (Itzaurean).

Yauresle adorador 130-9,
Oihenart-en itz eder *yauretsi-*
tik eratofia.

Ikasgu colegio, centro de
enseñanza 17-17.

Ikusgu mirador, atalaya
VI-10.

Inarki papel 105-5. Izpefi

onen efoa zein den ântzi zait.

Irakastaulki púlpito, cá-
tedra 118-13.

Izur máxima 115-2. Izpefi
au ezta nik sortua. *Iiz* ta *zur*
ditu efoak.

Izantz retrato 17-8.

Izen-fxartel tarjeta de vi-
sita 56-1.

Izkelgi dialecto VII-10.

Izkudaburu almirante; itzez itz, jefe de guerra marina 56-12.

Jokailu instrumento de

música 89-19. Efiak nonbait *yoare* onetarako sortu du, bainan âri ta ardien *zintzaria* soil-soilik ezagutaraziz.

K

Kirikate puerta para espíar 51-12.

L

Labandieta (lugar de) Altos hornos 142-14.

Lekame monja 9-19, Arana Goiri-ren izpefia.

Lenizki (letras) iniciales 76-25.

M

Maizkatu repetir mucho 74-10, **befizkatu** baino safiago.

Mezulari embajador, mensajero 56-15.

Mintzagu locutorio 76-19. **Mozkin-kutxa** caja de ahorros 72-14.

Mugakide fronterizo 48-23.

O

Onedatsi bendecir 46-13.

Onerespen caridad 126-2.

Otsezti melodía 66-25.

Oboki circular (de forma) 61-18. *Obo* círculo Bizkaiko basefiren baten entzun dut.

Oiukat cantar 25-14. *Yo* esaten da oilafarentzat.

Oiuki canto.

Oiufegi coro 88-19.

Opalmai altar 104-13.

Opalordu ofertorio 133-18.

Orgadi tren 18-1.

P

Pizkafi cerilla, fósforo 51-4.

S

Safaldi entrática 83-7.

Sendi familia 90-13. *Askuzi*-ren befi orduan yakin banu, enuen Arana - Goiriren

izpefi au aintzat artuko. (Ikus **Lamiak Euskalefian**).

Sorkide compatriota 73-19.

Suziri cohete 62-3.

U

Ulerkor inteligente, des-pejado 30-8. Enau itz onek betetzen.

Urezandiko ultramarino, indiano 57-26.

Z

Zêkatu describir 71-6.
Zeinuketa campaneo 63-23.
Zeinulari campanero 64-7,

Zubitua (*suduña*) nariz aguileña 56-8.

Zuku-lofean repartiendo sopa; itzez itz, en acarreo de sopa 64-24.

II. Bigarren gaia: Nonbaiko otsagiak (1)

Amaikatarikoak dira *Pernando Amezketaren* liburuan irakurri ditudan otsagi auk, geienok txiki-txikiak. Ustxo auk, bigarren elaztaldia (impresión) zeatzago izan dakion, agertzen dizkiot emen nere adiskide Mujikari. Nere eskutiko lantxoak argitaratzean beste onenbeste berak naiz beste edozeinek neri egingo balit, aldeaurézko eskerak ar bekizkite oraindixek.

1.^a *Nagusiaren mutur ofekin* 33-14 geroxeago y ori gabe dakar itz au: *nagusiaren muturá* 35-5.

2.^a Gure Aratiarak *istera* ta *izan*-en orde *izen* bezala, *isats*-en orde *isets* irakurri dut iru aldiz 112-garren ofialdean: *isets-ondoan*, *isets-azpian* ta *isetsa*. Beste beintxotan ere eztut *ia*-ren orde *ierik* ikusi.

3.^a Gipuzkoa geienean *basari* *baseñi*-ren orde bezala, *eguardiko* dio bein 46-15, beste bein *eguerdiko* 41-3.

(1) Fonetismos particulares. *Ots* + *agi* *ostagi* ere izan daiteke; baina *ostagi* *ots* (cielo) + *agi* fenómeno atmosférico, *metéoro* ere badelako, bego *otsagi* fonetismo adiarazteko.

4.^a *D*-ren ordez *r* ageri da itz auetan: *eřekatxoan eran zuan* (7-6), *baxo-erdi bat ERATEKO* garaia (33-20), *lagundu didate* «me han acompanyado»-ren ordez *lagundu dirateneñ artean* (13-3) (1).

5.^a Vocal-arřeko *r* noiztanka kentzen du: *Orduarte* (33-15), *bazkaitara* (42-5), *bazkaitan astekoan* (50-9). Noizean bein *r* ta guzi ageri da itz au: *berekin bazkaritan jari zuen* (50-19), *bazkaritan asi dira* (43-12).

6.^a Itz batzuk berenez duten *a* noizik noizera kentzen die: *zortzireun ARAUTZ ipiñiko zizkidaten* (104-15), *gizonak ez zion ZAUNKIK egin* (33-7), *jura zan gogoz PAR egitea!* (10-17), *jakiña bat PAR eragindako Peřnando gizarajoa!* (125-26).

7.^a *Ea*-ren ordez *ia*. *¿Nagusia ETXIAN al dago?* (36-22), *LANIAN arkitu zen* (51-17), *barkatu BIAR dit* (41-10), *ori entzun ZUENIAN* (37-18), *semearentzat ez ORDIA* (50-5). Osorik maiz irakur diteke *ea* au: *eraman nai danean* (41-14), *neskameak* (36-6), *nola ordea* (34-26) ta abar.

8.^a Ulketak (contracciones) dira maizen oar dezaken fonetismo-mota. *Diruak*-en ordez *DIRUK berezako izan balira* (37-18), *periatik*-en tokian *peritik etxera* (80-3), *amabietan* esateko *eguardiko amabi-AMABITAN* (46-18), *ordu bietan* esan bearean *ordu bitan ixil-ixilik* (81-7) eta gero *Bidaniko* (8-16), *sakristira* (90-21), *bi bertsoarikin* (54-4), *ederkigo* (10-9), *geigo* (12-10), *alaiagotu* esan-bearean *alaigotu* (13-11), *sariago* esateko *sariago* (6-17), *orduantxe*-ren ordez *orduntxe* (11-2), *bertsoetan*-en tokian *bertsoetan* (54-4). Ori bai: ulketa auek naiz beste fonetismo batzuk ere, alkarizketan erikoak yaři oi ditugunean,

(1) Gure EUSKERA-n dakustanez (VII-46) *edan*-en ordez *eran* 36 erifan esaten da, *ean* 45-etan, *edan* zafak bitxotan.

beti begi onez ikusi ta belafia gozatuz entzun oi ditugu. Ona Mujikak 7-gaŕen ofialdean darakuskigun itz taxa politak: (Peñandok) *iltzeko zorian zegoanean, ala omen zion: ni iltzen naizeneen esan geo argi asko alde guziitan, Peñando ez doola goseek il; beti efdi-goseek eta mixerin bizi izan banaiz ee, ondo asetuta il naizela*. Itz auetako fonetismo guzi guziak Amezketakoak izan ezaŕen, Peñandoren aotikotzat pozik ikusten ditu irakurleak.

9.^a Bein Tolosa-aldean nintzala, ango adiskide batek, egaŕia ilarazi ta gero, ordurarte bein ere entzun enuen ta orain arira datorkidan zerbait irakatsi zidan: sagardoa bitarikoa dela: giza-sagardoa ta emasagardoa; lenengoa gogor ta mintxeago, bestea goxo-goxo ta biguña. Bitarikoak dira gure *ez-ek* (nuestro negativo) eratzen dizkigun adizkiak ere: gizadizkiak eta emadizkiak. Zabal ditzagun, au ulertzeko, giputz-liburu entzutezuen bat edo beste. Mendiburuk Ofoitzgai-bigarĕn liburuan gizadizki auk dakazki: *bertzegatik EZPALIZ ere* 142-17, *ontzen EZPAGARA* 156-36, *jakin EZPALUTE* 143-11. Beste auk ere bai: *ETZAIIE guti kostako* 156-19, *ETZEN hau azkeneko Isaiasen eñaldia* 157-2, *ETZEKAREN egiteko hau* 169-31. Asteasuko Aguirreren *Platicac* deritzaion lanean auk irakurtzen ditugu: *erakutsiko EZPALU ere* II. 402-13, *onda nadiña au onela EZPADA* II. 410-14, *uzten EZPADIRA* II. 499-29. Besteok ere bai: *ETZEGOAN aita* II. 501-6, *ETZION iñork ematen* II. 500-25; *ETZIAN soldata oñetan geratu?* II. 177-28, *ETZAN trebe ezer agertzeko amari* II. 227-4, *ETZAITZTELA oitu* II. 411-21.

Lardizabalen TESTAMENTUA zabal dezagun orain. Ona adizki batzuk: *ETZEDILA ikaratu* 127-6, *gaitz ETZALA* 126-6, *ETZITZAION idiki* 259-23, *ETZUEN gaitz pensatu* 315-3. Orainartio adizki guziak dira lenen-

goetarikoak: gizadizkiak. Orain ordea... *sartzen* EZBAZIRAN 103-23, *laguntzarik* EZBADATOR 314-10, *laguntzarik* EZBAZETORKIEN 314-6: *ezba, ezba, ezba*. Goxo ta biguñ ta emetasun au ¿beronezkoa otedute adizki auek? Lardizabalek bere eskuz egindako lana, Tolosa-ko Lopez-enean 1887-gaŕen urtean eskuartean erabili zutena, ta nik orain nere eskuetan ta eskupean dadukadana, aŕetaz irakuŕi dut. Azken iru emadizki oriek Lopez-enekoak dira. Lardizabalen eskutik gizadizki atera ziran. Ona nola: *sartzen* EZPACIRAN (esku-idaztiaren 101-32), *laguntzaric* EZPADATOR (*Ibid.* 351-1), *laguntzaric* EZPACETORQUIOTEN (*Ibid.* 350-33).

Irakur ditzagun orain *Pernando Amezketaŕaren* liburuko adizki bitzuk: ona batzuk: *EZ ZAN agiri ta EZ ZAN agiri* (76-6), *EZ ZUAN lanak itoko* (6-14), *sabel bat besterik EZ ZUELA* (39-5), *EZ ZAIGU berealakoan aztuko* (8-5), *bakoitzari berea EZ ZAIO ukatuko* (12-23).

Ona besteak: *nai bazuen ta nai EZ BAZUEN* (42-4), *ezer igarŕi EZBALU bezela* (43-11), *aterik irikitzen EZ BADIOZU* (53-9).

Bi aldiz gutienez azaldu ditut *ez*-ek aditzean sortarazten dituen aldaketak: *Morfología Vasca*-n (611 ta 612-gaŕen ofialdetan) ta aŕezkero egindako eztakit zein lanetan. Lenago, nere *delictum juventutis* edo EUSKAL-IZKINDEA artan, ni ere emadizki zale nintzan. «El vulgo, *ez + ba* suele pronunciar *ezpa*» esan nuen 211-gaŕen ofialdean. Enaiz ordea oroitzen itz biribil auek idatziz, gogoia atseginez asean nuelarik, bizkaŕa lerdendu otenuen ala *ez*: enaiz oroitzen.

Nik badakit gure adiskide on ta lankide Mujikak eztuela Gramatika-kondotxo auek bilatu ta ediren-ondoan irakuŕi ta ikertu ta oker diranak zuzentzeko astirik. Urango bospasei leŕotxok beintzat irakur bitza jotoil *ez-kada* orien aŕoŕina nolabait ezagutzeko.

Ez onek eztu edozein *Bodega Petaca* itzultzen, aditz-barneko *b*, *d* ta *g* aldatzen ditu ořela, besterik ez: *ezpadaki*, *eztaki*, *ezkera*. Bere azkenki *z* ezta edozein *Leonzio*-ren aurean aienatzen, adizkien *l* ta *n* ta *z* jo bear dituenean baizik: *enator*, *eluke*, *etzerate*. *Ez busti*, *ez damu izan*, *ez garbitu ur ořezaz* ¿iñork inon esan oteditu *ez pusti*, *ez tamu*, *ez karbitu*? Itz orien *Bodega*, *ez-en* urena izanařen, *Bodega* da beti. *Ez lagun egin oři*; *ez nagitu*, *mutil*; *ez zoratu* ¿iñork inon esaten oteditu *e lagun egin*, *e nagitu*, *e tzoratu*? Iñortxok ere. ¿Zerengatik? *Ez* irabiameneko aurizkia (prefijo de conjugación) delako. Begira aburu onen beste sinistoin bat. *Ez* ta infinitivoen artean gisa askotako itzak sar ditezke, *ez* ta adizki baten artean itzik battxo ere *ez*, bakar bakari bere antzeko aurizki (prefijo) *al*, *omen* (Bizkaieraz, *ei*) *edo*, *ote* ta beste-ren bat. *Ez ořentzat ezer ekaři* edonork esan oi du, inork ere *ez ordea ez ořentzat ezer dakart*. ¿Nola bada? *Eztakart ořentzat ezer*. Beste prefijo oriek lagun dituztela *ez* ta *bai* biak erabili oi ditugu: *ezaldaki* ta *baaldaki*, *ezomendakar* ta *baomendakar*, *ezotedator* ta *baotedator*, *ezedo* ta *baedo* gutiagotan oitzen dira.

III. Irugařen gaia: ustxo batzuk

A) ARDI GALDUA-renak. Batean *igoten nintzan* 113-25, bestean *igotzean* 115-27 ta *igotzeko* VI-4. Batean *txartel* 56-1, bestean *txantel* 83-25. Erderazko «a esos», adiarazteko, Gipuzkerazko *oriei* edo *oiei* aintzat artu gabe, Bizkaiko *oři* dakar bein VI-21. Len aipaturiko *ařozku* dakar *ařoztegi* posada-ren ordez 4-25. *Irakastegi*, *irakasgu*-ren tokian 11-10.

¿Ik ezaldioak (Jesusi) entzun nai? 118-30 obeki legoke ik ezalduk Jesus entzun nai. Lenago onela esan oizan (Morfol. Vasc. 510-19), orain ere nonbait onelaxe: Yoannategik SAINDUEN BIZITZAN (224-12): *hofa nola entzun NAUEN*.

B) PERNANDO-renak. *Morfologian* (214-3) esan zanez, «muchos vascos emplean generalmente el demostrativo de tercer grado en vez del segundo y del primero», liburu onetan noizean bein ustxo auxe nabaritzen dugu: *onela*-ren ordez *ala* 13-16, *ona* «he aquí» bezala *ara* 13-6, 26-12, 34-27. Beste liburu askotan dakuskun *ara emen*, liburu onetan bein ere ez. *Ona emen* dira ain zuzen ere beronen lenengo itzak: *ona emen Pernauto Amezketafaren esaera ta gertaeren liburutxo* (5-2).

Entzule-ren ordez *entzunle* dio bein 11-17, *eusteko* ezañi bearean *eutsitzeko* 9-27, *austeko* bezala *ausitzeko* 68-19. *Ipiñi dituban* (d duela) *guziak* (12-16) bezala *egin deran guzia*-ren ordez (12-6) *egin dedan* yañi balu, obe. Azter dezagun Itzauré onetako esakera bat: *emen dijoazen guziak ere ez dira noski Pernauto'k esanak izango* (12-12). *Izango* au ezpalu, esakera ori jatorrago litzake. Ona zerengatik. *Morfologiaren* beste itz batzuk azalduko digute eritzi au. «En vez de decir *es probablemente Fulano, sin duda es Zutano, es posible que sea Mengano*, dicen *será Fulano*. Y lo peor del caso es que vascos que hablan a diario su lengua y aun muchísimos de los que la escriben, sin darse cuenta de que su lengua, tal como vive en su cerebro, es en esto prisionera de su romance, dicen *Urliia izango da* (como no digan, cometiendo otro barbarismo, *Urliak izan bear du* debe ser Fulano) y Adiós *Urliia alda* y *Urliia edoda* y *Urliia bideda* y *Urliia oteda* y ¿*Urliia dea?* y *Urliia da ausa*

y *Urlia da agian* y *Urlia da ameneko* y *Urlia da araiz* y *Urlia da aurki* y *Urlia da bear bada* y *Urlia da naski*, *nauski*, *noski* o *noaski* y *Urla da oiez* y *Urlia da uñean* y *Urlia da antza...* etc., etc. Aski zuen *Pernando Amezketaren* bigarren Aitak onela bere ustea agertzea: *emen dijoazen guziak ere eztira noski Pernandok esanak.*

Amar urtetik onera argitaratzen diran paper geienetan ikusten dugun ustxo bat emen ere ageri da. *Pernando'tzaz ez da oraindik liburutxorik egin.* (13-6): *Pernando-tzaz* ori ezta euskerazko itza, aranerazkoa baizik. «Desgraciadamente, en nuestros días, dio *Morfologiak* (309-6), escritores que no han podido conocer suficientemente la lengua empezaron a valerse de su variante *tza* (*za* artizkia ezagutaraztekoak dira itz auek) con todo género de palabras. Lentxeago beste itz auek irakur ditezke: *za* sólo se usa con el afijo instrumental *z*, pero no con cualquier tema, sino con los pronombres personales, demostrativos y algún cuantitativo como *asko*: *onezaz ostean* (*Per. Ab.* 194-1), *azaz ganeti* (*Añib. Esku* 192-2), *zuk nízaz, nik zuzaz atsegin hartzeko* (*Oih.* p. 99-17)... eta leño batzuk bêrago: ¡Qué lindamente se ve determinado el límite de este sufijo en este pasaje de Uriarte! ¿*Eta i ere ire* LAGUNAZ *eruki bear ezintzakan, ni ızaz erukitu nindukan bezala?* (*Mat.* XVIII-33).

Gipuzkoako eñi geienetan gure urgazle Bährek bildu zituen Erizkizundi-ko gaiak. Ogeita zortzi eñitan esaten omenda *nizaz*, amairutan *nitzaz*, irutan *nerrezaz* edo *neezaz*, bitan *neretzat*, Orexan *neretziko* ta Lizartzan *nitzat*.

¿Eñiarena oteda imperativo-ko adizki au? *Erekan gaudela esan* AKIOK? (76-13). Bizkaieraz bezala *eiok* esaten da Gipuzkoa geienean: EZEIOK esan. Eñi ba-

tzuetan *iok*, Amezketan *zaiok*. Astigaragan adizki auek ikasi nituen: *saldu akidak*, *akiok*, *akiguk*, *akiyek*; baina, Bizkaierazko *gi* muña aintzat artuz, beste auek ere entzuten dira Astigaragan bertan: *ema'iok*, *ema'iguk*... eta abar.

Gure adiskide Mujikari bigarren elaztaldia osoago egitea eraztu dakion, elaztutsak (erratas de imprenta) ere ementxe erakutsiko dizkiot: *zuten*-en ordeztuen 104-22, *naiz*-en ordeztuen 70-17 ta *praka*-ren ordeztuen 33-10.

IV. Laugarren gaia: Batasunerako erizkizunak

Batasunera-bidean aspaldion asiak gaude. Orain sei urte argitaratu zuen gure Euskaltzaindi onek ERIZKIZUNDI IRUKOITZA deritzaien liburuxko bat. Eriaren aotik bear genituen eritziak izateko, Baehr erabili bear izan genuen Gipuzkoako uririk uri ta basauririk basauri; Ormaetxea Bizkai ta Arabakoetan, Napafoan Iraizoz, Lapurdi-aldean (bertakorik inor laguntzat izan ez-ta) Arabar batek—Apraizek—zerbait bildu zuen. Giputz-eritziak batu ta ainbanaturik gure *Euskera*-ren ofietan igaz argitaratuak izan dira erditsoak, gainerakoak berealaxe ikusiko ditugu.

Nik lantxo onetan Erizkizundi irukoitzean ez tiran erizkizun batzuk erakutsiko ditut.

Lenengoa: *r* ta *ř*.

Gure idazkeran *r*-k duen galdoia (gaineko maratxo) ¿vocal-artearen bezala, egoki oteda consonante baten aurreko *r*-ri ere ezartea? Mujikaren liburuxko berrian maratxo au, ez bakarrik Amezketaren *r*-k, baita *Pernandorenak* ere badu. ¿Egoki oteda? Eztut uste. Ona zerengatik. *R* bat, berez biguña izanaren,

konsonante baten aurrean gogortzat ebaki oi dugu. *Zer* iztxo politak, *r* bigundun delarik, ondorengo bitzuok daduzka: *zeri, zeren, zereko zera, zerañen...* eta *zergatik, zerik, zeritu, zeritzat, zeritzuk*. *Zer* berau ere, urango itza konsonantez asten denean, gogor ateratzen da gure ezpainenatik: *zer du orek*. Askok vocal-aurrean ere orelaxe esan oi dute: *noñ aiz i*. Beste amaikak *zer-en r-txo* ori uldu egiten dute: *ze añaio, ze beñi...* ta abar. Onelaxe gogor entzuten dituelako, gaineko maña ta guzi idatzi ditu gure Mugikak, beste itz batzuen artean, *r* berez biguñdun itz auek: *noñbaitek* (5-13), *agerituerazi* (10-6) ta *ezeritxo* (12-18).

R bigun onezaz Napañoako eriberañak beren *r* gogoraz egiten dutena egin bear genuke, nere ustez: beti berdin idatzi. *T*-ren ondoko *r* Napar erdaldun oriek *s* bezalatsu oguzten dute: *trastos, tres, trizas, cuatro, tris-tras*. Guk ere naiz *ageri da* naiz *agertuko du*, naiz *norentzat* naiz *norbait* idatzi bear dugunean, beti *ere* (*r* galdor gabea) aintzat ar dezagun.

Onezaz gainera konsonante baten aurreko *r* guziak gogor-maña gabe idaztea egoki litzakela uste dut. ¿Zerengatik? Orelako itz geientsuen *r* berez biguña ala gogoña den ezta kigulako. *Zurbil* edo *zurpail* ta *garsoil r* bigundunak direla badakigu, *zuri* ta *gara* (cráneo) beron yatoñi direlako. *Garnu* ta *bardin* edo *berdin r* gogordun direla ere uste izan liteke, beron ituñi bezala *gañi* ta *bañi* edo *beñi* baitira. ¿Nork daki ordea nondikoak diren *garbi, argi, argal, erbi, zerba* (acelga), *orga, gurdi* edo *burdi, ergel, urgun, erkin, margo, bart* edo *barda, ardatz, zarpa-zikin, erdi, ordi* ta beste eun onelako?

Erdaldunak beren bi *r* bezala gure *r* galdorduna erabiltea dela uste dut egokiena: vocal-artean soil-soilik. Aiek *carro* ta *corro, barro* ta *jarro* bezala

guk ere *ari* ta *lafi*, *bañi* ta *jañi*; eta berak *cardo* ta *gordo*, *bardo* ta *pardo*-ren antzean *r* soil-soilez *argi* ta *garbi*, *ardo* ta *mardo*.

Bigarrena erizkizuna ¿—ala'?

edo

¿*Bilbotik*, *Bilbo-tik* ala *Bilbo'tik*?

Erderazko «nombres propios» deritzaien izenak, batez ere gizonenak, deklinazioneko atzizkiak gaineratzen zaiztenean, lenago idazle batzuk «guión» batez papereratzen zituzten, gure egunetako idazle askok gainaldeko «coma» bat ezariz. Zabal dezagun lenik Leizarragaren *Testamentu beñia*. 108-garñen orrialdearen aurea eman dit eskuak, «Guión»-dun itzik bat ageri da: *David-en* (16-garñen bertsikuluan); guionik ez komarik gabeak bost: *Jesusen* (bi aldiz), *Mariarekin*, *Pieñisek*, *Judasez* eta *Joannesen*. Zabal dezagun Mendibururen Otoitzgai-liburu bigarrena. 316-garñen orrialdean iru aldiz dakar *Jesus-ek*, bi aldiz *Jesusen*, bein *Jesusi* ta bein *Pilatosen*. Ez «guionik» ez gaineko «coma»rik eztakusku. Ona Lardizabalen adibide batzuk, guziak «guión» dunak: *Jesus-ek* (438-garñen orrialdean), *Nazaret-etik* (439), *Lazaro-ren etxean* (464), *Betania-ra* (464), *Anas-en sui Kaifas* (464), *Jesus-i aurean* (465), *Jerusalen-en* (553). Nire *Ardi galdua* deritzaion liburutxoak oso itz gutxitan darakus onelako marátxorik, gaineko «coma»rik bein ere ez. 44-garñen orrialdean guiondun itzik *Sacramento-ko Hotel Leaburu* ageri da, mara gabeak *Diogenesek*, *Medelek*, *Tolosako*, *Leaburuko*, *Bostondarñak*, *Anñon Barandiaranek*.

Zabal dezagun orain Pernando Amezketararen liburua. Emezortzigarren orialdea eman dit eskuak. Etxegarayren lan politaren zatiduna da. Ona zenbat aldiz dakaŕen gainaldeko komatxoak: *Amezketararen, Amezketako, 1764garren, Ufilaren, 10'ean, Sagastume'rekin...* sei orainarte; eta gainera beste amaika, orialde bakar baten. Etxegaray bat aipatu dudanez geroz, bigarrena ere betor. EUSKAL ERIKO ERRIEN IZENAK deritzaion lan bat gure *Euskeraren* igazko azkengaiari argitaratu zuen. ¿Zenbat aldiz dakaŕela uste duzute «nombres propios» orien gainaldeko koma ori orialde bakar baten, 107-garrenean? Irurogei ta emezortzi bider, *Abadio'n* asi ta *Irun'en* amaitu. Orain eskaritxo bat zuzendu nai diot *Les Annales de la Propagation de la Foi* mende onen urte guzietan, frantsesetik artuta, euskeraz eman digun gure lankide agurgafi Landeretxeri: euskaltzain sar-beŕi ta langile zâr dugun Bonifazio Etxegarairi Lapurdiko eskuaraz esan dezaiola: *Monsieur, vous, vous avez battu le record* (1).

Deklinazioko maŕatxo au erabiltea ¿egoki oteda? Mintzaera zâr geienak deklinaziodunak ziran. Nik dakidala bakartxo batean ere etzioten desinentzia bakoitzari ez *guion*-ik ez komarik ezarten: *Domini, domino, dominum*; ez ordea *domin'i, domin'o, domin'um* ezta *domin-i, domin-o, domin-um* ere. Beste mintzaera geienetako deklinazioan safi egiten etzena ta eztena dakusku beti euskerazkoan: nominatiboa beste kasu guzietan ageri izaten da: *Yauna* ta *Yaunak, Yaunari, Yaunaren, Yaunarentzat, Yaunaz, Yaunagaz, Yaunarekin, Yaunarengana...* eta abar (2).

(1) *Yauna*: *zuhaurk xaxa ethen duzu*. Ontsa itzulia (turnatua) oteda?

(2) Azkenkitzat *r* zedukaten itzak oso-osorik gordetzen zuten latinez ere beren nominatiboa, geienak beintzat: *puer, pueri, puero... vir, viri, viro... doctor, doctoris, doctori... onager, onagri, onagro...* o-dun batzuk ere bai: *leo, leonis, leoni...* beste batzuk ez: *homo, hominis, homini...* us ta umdunen artean batek ere ez: *annus, anni, anno... argentum, argenti, argento...* eta beste asko.

Euskeraz alde geienetako nominativo bakar bat dazagut — *hura* aquel — deklinazioan ageri eztena: *hura* ta *ark*, *ari*, *aren*, *arentzat*, *azaz* edo *hartzaz*, *arekin*... etc. Or ageri den *a* ori Bizkaierazko nominativoa da. Gipuzkeraz beste izenorde gizakizkoak (*pronombres personales*) ere nominativoa aldatzen dute kasu batzuetan; *ni* ta gero *nere*, *neri*... *gu* ta *gere* etxean. Araugetasun au irugarren erizkizunean azaldua izango da.

Beste nominativo bat ere aintzina bazen, kasuetan bizi izan afen, orain soilik beintzat agertzen etzaiguna: *en* yo. Or-emenka irakuri ta entzun ere egiten ditugu *ene*, *eni*, *enetzat*, *enegaz*, *enekin*, *enekila* ta besteren bat. ¿Nondikoa da ori? Wundt yakin-tsuak bere *Völker Psychologie* deritzaion liburu ugarian dionez, Jesukristo baino bosteun bat urte lenago bizi zen *Mande* izendun mintzaerak «yo, tú, aquél» adiarazteko, euskerazkoak berberak zituen: *en*, *i*, *a*. (Ikus *Morfología Vasca*, 327-28).

Onezaz gainera bada euskerazko genitivo bakar bat — *bere*, *su*, *de él* — nominativo gabe ageri dena. Beste guziak au normairan ikustefean azaltzen dute: *Aitaren*, *Amaren*, *Jesusen*, *gure*... posesivo auk or dituzte *Aita*, *Ama*, *Jesus*, *gu* arianpalo bezela ageri-ageriak beren nominativoak. *Bere* ofek beñiz ostenean eta erdizkatua dauka nominativo eder *bera*. Yakingaiñō au laugarren erizkizunean (ufengo batzarako lanean) zearotxoago azalduko dut.

Itz gutxitan erakutsiko dut orain bigarren erizkizun onezazko nere ustea. Egokiako edoda ez guion-ik ez komarik deklinazioan erabiltea. ¿Zerengatik? 1.º Beste izkeretako deklinazioa, safi askotan gurea baino ilunago izanaren, olako argitasun gabe ederki azaldua izan delako; 2.º Euskalidazle zarrenak (eta ez txarrenak), onelako mararik erabili ez ta ere, ederki ulertzen ditugulako; 3.º Deklinaziotik Deribaziora Logikak eramango genituelako. *Irun'en*, koma ta guzi agertuz geroz, koma gabe idatzita baino argiroago dakusku bere oina (tema) zein den: *Irun*. Egia da.

Zertarako maña auek ezari? Argiroago uz-oinak erakusten dizkigutelako? Orduan *zaldidun* poseedor de caballos, *zalditeri* caballería, *zaldiketa* rebaño de caballos, *zaldiño* potranco, *zalditegi* cuadra de caballos, *zaldito* caballito, *zalditzar* caballazo, *zalditze* tropa de caballos ta *zaldizko* jinete onela idatzi bear izango genituke: *zaldi'dun*, *zaldi'teri*, *zaldi'keta*, *zaldi'ño*, *zaldi'tegi*, *zaldi'to*... eta abar. Utz ditzagun maña oriek itz bikoitzetarako: *zaldi-buru*, *zaldi-buztan*, *zaldi-yabe*, *zaldi-oñazi*... idazteko. Atzizkiak (sufijoak) itsaskor baitira, itsatsiak izan bitez. *Buru* ta *buztan* ta *yabe* ta *oñazi* atzizki eztirelako ezlitzagun itsatsi, bainan *zaldi* oñezaz alkartuak eta bikoiztuak dakuskigulako, ar dezagun (orainarte egin oi dugunez) ar dezagun mañatxo bat eta beren artean ezar dezagun.

Egungo bi erizkizun auek (*garbi* ala *garbi* ta *Bilbotik* ala *Bilbo'tik*), nire uste au lagun dutela, egun batzu bañu euskaltzain guziaz igoriko dizkiet; emendik uréngo batzaera - bitartean bi erizkizunok arduraz ikertu ta gero, Doniane-inguruan erabaki bat Euskaltzaindiak artu al izateko.

Orain, amaitzeko, gure lankide ta adiskide maite Mujikari bere liburuak eman didan atseginez erakutsi nai diot.

AZKUE

Bilbon, 19-V-1926.

(Batasuneko beste erizkizunak azaltzen yafaituko du).